

PROMOZIOAREN OINARRIAK

- Promozioren aldia: 2023ko azaroaren 20tik abenduaren 21era.
- Promozi hau Eusko Labela duten harategi baimendu tradizioletarako da, doakoa eta 3. puntu adierazitako baldintzak betetzen dituzten pertsona kontsumitzaileei zuzendua.
- Promozioren mekanika:
 - Promozioren parte hartzeko ezinbestekoa izango da 10 euroko edo hortik gorako erosketa bat edo gehiago egitea Eusko Labela duen edozein produktutan edo produktu horiekin egindako beste edozeinetan (erosketa 20 €-ra iristen bada, 2 kupoi bete ahal izango dira, eta horrela hurrenez hurren).
 - Parte hartzeko kupoiak harategi bakoitzean dagoen postontzian utzi beharko dira, parte-hartzaile bakoitzaren datu pertsonalekin batera (izena eta harremanetarako telefonoa). Kupoi guztiak agortzen badira, beste edozein paper erabili ahal izango da, datu pertsonalak bertan idatzita.
 - Kupoia bakarrik sartu beharko da, eta beraz, ez da informazio-etiketak edo erosketa-tiketarik sartu beharko.
 - Promoziua amaitzean, **harategiko arduradunak txartel bat aterako du bere postontzitik, nork irabazi duen identifikatzeko**. Zozketa 2023ko abenduaren 22an egingo da.
 - Beraz, harategi guztietan irabazle bat egongo da. Bigarren bat ere aterako da postontzi bakoitzetik erreserba moduan, irabazlea astebeteko epean aurkitzea ezinezkoa balitz erabiltzeko. Promozioren ezin izango dute parte hartu handizkariak, harategiko langileak, promozioarekin lotutako merkataritza-prozesuetako langileak edo lotura hori duten ontziratzaileak.
 - Bezeroen informazio pertsonala babesteko, Datuak Babesteko Legeak zehazten duen moduan, oso garrantzitsua da, irabazlea ezagutu eta hark saskia jaso ondoren, harakinak parte hartzeko kupoiak haustea eta, promozio material guztiarekin batera, horiek birziklatze-puntu baimendu batean entregatzea.
- Oinarri guztiak eta sarituen izenak webgune honetan argitaratuko dira: www.euskolabel.hazi.eus
- Promozi honetan parte hartzeak oinarri guztiak onartzen direla esan nahi du.
- Sarien kopurua honakoa izango da:
Saski bat harategi bakoitzeko (101 unitate).
- Opariaren edukia:

Landaluce ardo beltz ondua, Arabako Errioxa J.D. Botila 1
Urdaibai txakolina, Bizkaiko Txakolina J.D. 75 cl-ko botila 1
Zudugarai txakolina, Getariako Txakolina J.D. 75 cl-ko botila 1
Eukeni txakolina, Arabako Txakolina J.D. 75 cl-ko botila 1
Markesa Ohiarte sagardoa, Euskal Sagardoa J.D. 75 cl-ko botila 1
Idiazabal artzain-gazta, Idiazabal J.D. ¼-ko unitate 1 (350 g inguru)
Basatxerri* erreserba handiko urdaiazpiko xerratua. 100 gramoko 2 zorro
Basatxerri* erreserba handiko solomo xerratua. 100 gramoko 2 zorro
Basatxerri* erreserba handiko saltxitxoi xerratua. 100 gramoko 2 zorro
Basatxerri* erreserba handiko lukainka xerratua. 100 gramoko 2 zorro
Eusko Labela duen oliba-olio birjina estra. Arroniz bariatatea. 0,50 cl-ko botila 1
Eusko Labela duen Añanako gatz-lorearen ezkata. 125 gramoko ontzi bat
Eusko Labela duten Tolosako babarrunak. Kg bateko zaku 1

Eusko Labela duen Arabako babarrun pintoa. Kg bateko zaku 1
Eusko Labela duten Arabako garbantzuak. Kg bateko zaku 1
Eusko Labela duten Zubelzu Ibarrako piperrak. 380 gramoko zaku 1
Arabako trufa duen Basatxerri pate. 130 gramoko ontzi 1
Ezpeletako piperra duen Basatxerri pate. 130 gramoko ontzi 1
Eusko Labela duen hegaluzearekin egindako hegaluze-kontserba. 450 gramoko ontzi 1
Eusko Labela duen hegaluzearekin eta Ezpeletako piperrarekin egindako hegaluze-kontserba. 227 gramoko ontzi 1
Eusko Labela duen "Urikoa Eztiaren" Mila Lora ezti. 1/2 kg-ko ontzia
Ezeiza Etxeko Tolosako teilak eta zigarrotoak. 300 gramoko ontzi 1
Txokolate esneduna (% 32) karameluarekin eta Añanako gatzarekin. Rafa Corrotxategi. Tableta 1
Eusko Label mantal 1
Rattan saskia, euskarri tolesgarri duna

- Saritutako kupoiak ateratzen duen harakinak irabazlearen izena idatzi beharko du promozioaren kartelean.** Promoziua amaitu ondoren, Hazi kontratatutako agentziak harategi guztietara deituko du **irabazlearen (nagusia edo erreserbakoa) datuak jakiteko. Honako datu hauek ezinbestekoak izango dira: izen-abizenak, helbidea (posta-kodea barne), telefonoa eta/edo helbide elektronikoa**. Irabazleari telefonoz edo posta elektronikoz jakinaraziko zaio saria lortu duela. Gainera, Haziaren webgunean argitaratuko da.
- Sarituen saria irabazi duen harategian ikusgai egon den saskia jasoko du. Harekin harremanetan jartzea ezinezkoa gertatzen bada, erreserban dagoenari adieraziko zaio saria irabazi duela.
- Irabazleak jakinarazten badigu ez duela saskia jaso, harategi horretako arduradunak konpondu beharko du sortutako gertakaria.